

Andoaingo ikasleak, 10 urtez ingurumenaren alde ekinean

Erakusketa honen asmoa Andoaingo ikasleek Eskola Agenda 21 eta Zuhaitzaren Eguna ekimenetan egindako lana azaltzea da.



ANDOAINGO UDALA



Eskola Agenda 21

2004-2005 ikasturtean hasi ginen Andoaingo ikasleak Eskola Agenda 21 egitarauan lanean eta konturatzerako hamar urte bete ditugu. Urte horietan guztietan, hondakinak, mugikortasuna, ura, klima aldaketa, energia, bioaniztasuna eta kultura aniztasuna landu ditugu maila desberdinetan, ikasgelan gaiari buruzko azalpenak jaso eta ariketak eginez, ikastetxeko kudeaketan lagunduz eta ikastetxe zein herri mailako erabakietan parte hartuz. Honen guztiaren helburua, gure eskola eta herriaren egoera hobetzeaz gain, ingurumenarekin arduratsua goa izango den gizarte parte-hartzaile bat eraikitzea da.

Zuhaitzaren Eguna

Ikasturte bereko otsailean hasi ginen Andoaingo Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleak Zuhaitzaren Eguna ospatzen eta, dagoeneko, Idiazabal parajearen zein Otieta Landa Parkean hektareatik gorako eremua bete dugu haritz, pago, astigar, lizar, urki, gereziendo, elorri zuri, elorri beltz eta haltza bezalako bertako zuhaitzez. 5. mailan zuhaitzak landatzen genituen eta 6. mailan, zuhaitzak nola hazi ziren ikusteaz gain, horiek ezagutzeko oinarriak hartzen genituen. Gu baino lehen, Eguzki talde ekologistak antzerako ekimena sustatu zuen herriko basozainarekin batera eta, egun, Sorabillako auzokideek ere, jaiotako haur bakoitzeko zuhaitz bana landatzen dute. Natura berreskuratzeko ekimen guztiak ongi etorriak eta beharrezkoak dira.



L@s alumn@s de Andoain, diez años luchando a favor del medio ambiente

El objetivo de esta exposición es dar a conocer el trabajo realizado por l@s alumn@s dentro de las iniciativas Agenda 21 Escolar y Día del Árbol.



Agenda 21 Escolar

El curso 2004-2005 l@s alumn@s de Andoain dimos inicio al programa de la Agenda 21 Escolar y para cuando nos hemos dado cuenta, ya llevamos diez años. En todos estos años, hemos estudiado los residuos, la movilidad, el agua, el cambio climático, la energía, la biodiversidad y la diversidad cultural de forma diferente, recibiendo explicaciones y realizando ejercicios en clase, ayudando en la gestión del cole y participando en las decisiones tanto del cole como del municipio. El objetivo de todo esto, además de mejorar las condiciones de nuestro cole y del municipio, es construir una sociedad participativa más responsable con el medio ambiente.

Día del Árbol

L@s alumn@s de los centros escolares de Primaria de Andoain empezamos en febrero del mismo curso a conmemorar el Día del Árbol y en este tiempo hemos llegado a plantar más de una hectárea en el Parque Rural de Otieta y en el paraje de Idiazabal con especies autóctonas como robles, hayas, arces, fresnos, abedules, cerezos, espinos albares, endrinos y alisos.

En quinto, plantábamos árboles y en sexto, además de ver como habían crecido, aprendíamos las bases para identificarlos.

Antes que nosotr@s, el grupo ecologista Eguzki en colaboración con el guarda forestal de Andoain ya habían impulsado una iniciativa parecida y hoy en día, los vecinos de Sorabilla también plantan un árbol por cada nuevo nacimiento.

Todas las iniciativas para la recuperación de la naturaleza son bienvenidas y necesarias.